



*Poloniako WZZ Sierpien 80 sindikatuko burkideen bisita izan dugu gure artean azken bi egunetan. Poloniako bi hauek Bilbo eta Donostiako Igarako egoitzetan izan ditugu bisitari, LAB sindikatuko Gaizka Zuriarrain, Koldo Saenz eta Fontxo Aranguren egon direlarik beraiekin bi egun hauetan.*

WZZ Sierpien 80 sindikatuko kideek bilkura ezberdinak izan dituzte, bai LABeko exekutiboko kideekin besteak beste Ainhoa Etxaide idazkari nagusiarekin, bai LAB sindikatuko arrantza sektoreko arduradunekin eta baita ere beste eragile batzuekin. Bilkura hauetan bi herrialdetan bizi ditugun errealitateari buruzko informazioa trukatu dugu, etorkizunerako elkarlanerako zubiak eraikitzen hasi garelarik.

Preso dagoen Rafa Diez LABeko idazkari nagusi ohia ere gogoan izan du LABek bilera hauetan.

—